

Milesker Lev

Orain dela zenbait aste liburu lanketa aberasgarri bezain argigarrira burutu genuen ikastaldean, Nestor lankide irundar zoliak ekarria: Lev Tolstairen *Zenbat lur behar ditu gizon batek?* ipuina, zeinetan Pahom handinahi aseezinaren balentriak kontatzen baitira.

Ezin interesgarriagoa galdera. Izan ere, zenbat sos behar da bizitzeko ongi? Hau da, apailatu, fakturak ordaindu, haurrak gastatu, bidaia bat edo beste egin? Erran nezake bi mila euro inguruko hilabete saria, hortik landa probetxuzko saria deritzot. Bizkitartean, azken denboretan, arazoa ez da molde horretan plantatzen: gardenki, maltzurki nahiz mahaipetik ehunka milaka euro sakelaratzten dituztenen klubak 1.300 bat irabazten duenari aho-beteka saltzen dio elkartasun kutxei 400 euroko pseudo-iruzurra egin dion gizagaixoa dela problema. Kohesio grinaz, terrorismoaren mamuaren bidez (erlatiboki) kanpoko etsai komuna definitu den bezala, sortu da barneko populuaren etsaia: pobrea, klase ertainaren aurkari gisa jarria, batzuk ohointzan dabiltzanean. Eta hor bai, bada arazoa. Sinesten bada sustut.

Gurera itzuliz, kapitulu baten lanketaren erdian, Antton ikasle argitsuak bota zuen: "Pahom hori, Fillon bezalakoa da: beti soineko ederragoaren enbeiarekin. Istorio hau, Bea, ezin da ontsa finitu". Abilki zebilen, ipuinean behintzat hainbat desmasia sozio-ekonomikoren eta ekologikoren ondotik, handinahiak itorrik leher egiten baitu Pahomek. Baina gu ez gara ipuinetan bizi, hor dago koska.

PNF delako finantza auzitegia da segurki François Hollanden agintaldian sortu tresna emankor eta errentagarriena. Badute lan eta arazorik ez gaurko goi-kargudun anitzti aferaren baten atzemateko. Badirudi bakoitzak duela zerbait gordetzeko: dela zenbait



Bea Salaberri

IDAZLEA
@beatxo



Antton Olariaga

soineko, dela zenbait literatura kritika artikulu gizenki ordaindu, dela zenbait trafikoren etekina. Bizkitartean, François Fillon ez du ahalkeak gorritzen ere. Ez Fillon, ez eta bestalde akusaziopean diren beste hautagaiak.

Nehor ez da harritzen, gauza jakina baita kargudunak (moda xaharrekoak kendurik) ez direla afari oparoz erosten. Eta mailan zenbat eta gorago joan orduan eta kopuruak handiagoak, interesak iraunkorrakoak, karrerak, boterako bideak, boteretik sosa, sosatik boterea. Faustiarra. Ez gara harrituko ere, damutu, ebatsiak itzuli eta erretiratu baino, denbora gasta dezaten beste kandidatuak erasotzen, kabinete beltzak edota ager litezkeen dosierrak iragarritz.

Sei hilabete Frantziako Estatua hauteskunde giroan murgildurik dela: gezur festa handia. Nago frantses arruntak zer deabru bozka dezakeen, harago Frente Nazionalari *baraje* egiteko indarrak bilduko ote duten. Izan ere azken hiru presidentzialetan FNren arriskua zen azken beltzeko argumentua, inarosten zen fantasma, programa eta problematikak aipatzea saihestuz, bozka manipulatu, behartuz. FNren igoera eskuindar saldu okituei eta ezkertiar arinduen inkapazitateari zor zaio. Gaur hautesleengan trufatzen, nahasten eta zangopilatzen dituztelako inpresioa da nagusitzen. Etsai komunak ez dira nahikoak izanen hauteskundeetan mobilizatzeko.

Istorioa nekez da ontsa finituko. Hautuan: ohoina, gezurtia, gaixtoa eta inutila.

Bon, gogorra naiz bai, eta ez nuke nahai abstentzioaren ondorioak leporatzea: Poutou bozka daiteke. Langilea, duina eta umoretsua da gizona eta, ale, erran dezadan, xarma zerbait kausitzen diot! Eta hori aski izan daiteke ene mugiarazteko. Zoritzarrez beretzat, ez da olderik altxatu aspaldian gorri baten alde, kausa galduen kandidatua hots, ene izarikoa. ■